


«Baserriek ez dute tokirik izango XXI. mendeko Donostian»

Josu Tellabide etnologoa da. Antiguatarrak Atarian erakusketan Donostiako baserriez hitz egin zuen. Guk gaiari heldu eta berarekin aritu gara solasean, Donostiako ondare etnografikoaren nondik-norakoak hobeto ezagutzeko asmoz.

Josu Tellabide



«Egipton piramideak dituzten bezala, guk baserriak ditugu»

Raul Perez. Argazkiak: Imanol Otegi.

Donostiak baserri asko galdu du. Azken urteotan egoera larriagotu al da?

Nik esango nuke azken hamarkada honetan suntsipena azkartu egin dela. XVIII. mendera arte Donostian baserri kopuruak goruntz egin zuen nabarmen. Zoritxarrez, Karlistadekin baserrien suntsipena hasi zen, etxe asko txikitu zuten eta. Hiria zabaldu zen, batez ere Amara inguruan eta ondorioz, hainbat baserri galdu ziren. Dena den, benetako suntsipena 1936ko gerra ostean gertatu zen eta ondoren, saihebidarekin. Azken hamarkadetan prozesuak aurrera jarraitu du eta azken urteotan azkartu egin da.

Diozunaren arabera, kultur ondarearen suntsipena azkartu egin da. Zein baserri galdu dira azken urteotan?

Besteak beste, Ibaetako campus ondoran zegoen Andrestegi aipa daiteke. Esanahi bereziko baserria genuen hauxe, arkitektoek planoekin egindako lehenengo baserria zen eta. Zapatari, Martikostegi, edota Belartza bezalako eraikuntzak ere behera bota dituzte azken hamarkadan.


Zer egin beharko litzateke Donostiako baserriak babesteko?

Kontuan hartu behar dugu hamabost bat baserrik XVI. mendeko egiturak dituztela eta, beraz, Donostiako eraikun-

tza zaharrenak direla, hiriaren arima. Egipton piramideak dituzten bezala, hemen baserriekin gozatzeko aukera dugu eta Udalak eraikuntza hauen garrantziaz jabetu behar du eta geratzen diren baserrien ardura bere gain hartu. Azken batean, gure ondarea dira. Nire ustez, Udalak arduradun bat izendatu beharko luke baserriak babesteko eta Plan Orokorrak baserrietan duen eragina neurtzeko eta ikertzeko. Herri batzuetan lurralde antolaketan baserriak aintzat hartzen dira eta baserrien inguruan ezin da etxebizitzarik eraiki. Donostian, ordea, ez dago baserriak babesteko araurik, katalogazioek ez diete inongo baliorik ematen baserriei. Azken finean, Donostia bezalako hiriburua batean baserrietarrak ez dira inor.

Udalak Auditx Akularren azken hamarkadetako hirigintza lanik handiena egingo duela iragarri du. Nolako balorazioa egiten duzu proiektu erraldoi honi buruz?

Ezkor samarra naiz honelako egitasmoak ikusita. Proiektuaren arabera, eutsi egingo zaie eremu horretako baserriei, baina hala ere, aldaketen ondorioz, baserriek balioa galduko dute. Izan ere, inguruetan izango dituzten berdeguneak ez



Josu Tellabide etnologoaren esanetan, Donostian baserriez gain, toponimoak ere galtzen ari dira. Grosclaude toponimistaren hitzak hartu eta honelaxe dio Tellabidek; "toponimia galtzen denean herria ere galtzen da".

dira nahikoa izango. Hiria egiten ari den presioa izugarria da eta baserriak baliorik gabeko etxe arruntatzat hartzen dituela agerian utzi du.

Gero eta baserri gutxiago dago. Hala ere, zein izan daiteke baserri hauen eginkizuna XXI. mendeko Donostian?

Nire iritziz, suntsipenak aurrera egingo du eta baserriek ez dute tokirik izango XXI. mendeko Donostian. Dena den, aipatu dudan bezala, duela laurehun urteko eraikuntzak ditugu eta beraz, baserriotako batzuk museo bihurtu beharko lituzke Plan Orokorrak, suntsipena erabatekoa izan baino lehen. Baserriak babestu beharko lirakeke eta

«Donostiako hamabost bat baserrik XVI. mendeko egiturak dituzte»

baserritarrentzat dirulaguntzak bideratu, ingurua zain dezaten.

Etnologian egindako lanak eta ikerketak direla eta, harreman estua izan duzu baserritarrekin. Nolakoa da baserritarren izaera? Esan ohi den bezain itxiak al dira?

Baserritarren arazoei helduz gero, ez dira batere itxiak. Baserritarra euskalduna da eta hizkuntzak ere irudizko harresi bat eraiki du baserritarren eta hiriko jendearen artean, bi mundu ezberdin dira. Baserritarrak jakin badaki hirigintza prozesu erraldoiaz inguratuta ez duela etorkizunik, eta beraz ulergarria da errezelua izatea. Horrez gain, duela zenbait urtetik hona korbatadunek engainatu dituzte.

Antiguan bizi zara. Garai batean Lugaritz izandakoan. Hau al da Donostian gehien aldatutako ingurua?

Egia da Lugaritz ohian aldaketa handiak egin direla, baina leku gehienetan bezala. Garai batean Donostiako baserri

eta lur aberatsenetakoak Amaran zeuden eta gaur egun Amara arrisku bizian dago, Abiadura Handiko Trenak eta Urumeako saihebidetako kolokan jarriko baitituzte bertako baserriak

Donostiako toponimoei buruz ere hainbat lan egina zara. Zer egin daiteke gure toponimoak berriskuratzeko?

Toponimoak gordetzeko eta berreskuratzeko egin daitekeen gauza bakarrenetakoa erabilera ofizialki bultzatzea da. XII. mendeko toponimo batzuk, Fayet eta Morlans, adibidez, gaskoi jatorrikoak dira, Donostia ekialdean mantentzen dira. Mendebaldean, berriz, galera nabariagoa da, eta Ibaetan, esaterako, ia ez dago toponimorik. Tamalez oinarria, hau da lurra, galtzen denean jatorrizko izenak galtzen dira. Txubilloren ordez, Monte Igeldo erabiltzen da, Puyoloren ordez, Fermin Calbeton... Hainbat eta hainbat gaztek ez dituzte jatorrizko izenak sekula ezagutuko. Michel Grosclaude toponimista handiak dioen bezala, toponimia galtzen denean herria ere galtzen da.